

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZOKO BILKURA Amaña

DATA 14/10/2014

| Saila        | LABURPENA  | ERANTZUNA  |
|--------------|--|--|
| Alkatetza    | Arduratuta daude tabernetan eta dendetan lapurreta asko egiten ari delako; lapurrak etxeetan sar daitezkeela-eta beldurrez daude.  | Alkatea Ertzain-etxeko Nagusiarekin egon zen horretaz berba egiteko eta hark esan zion, ikerketak egin ondoren, kasua itxi egin zutela.  |
| Alkatetza    | Auzoan aparkalekuak falta direla eta kexa adierazi dute. Egiten ari den Mugikortasun Plangintzak dioenez, 100 aparkaleku inguru falta dira auzoan.   | Badakigu aparkalekuarena arazo bat dela, baina horri konponbidea ematea ez da erraza. Hiritarrek helarazten dizkiguten proposamen guztiak aztertzeke prest gaude, eta aparkaleku berriak egiten ahalegintzen gara.   |
| Obrak        | Trenaren geltokiraino iritsiko den igogailu bat jartzea eskatu dute. Eskailerak daude, beraz ezinezkoa aulki gurpildunentzat eta ume-kotxeentzat.  | Nasa bi daudenez, igogailu bi ipini beharko liriateke eta hori zaila da, leku gutxi dagoelako. Tren-geltoki berriak egoera zertxobait hobetuko du.   |
| Obrak        | Karlos Elgezua kalearen irisgarritasuna hobetzea eskatu dute. Galdetu dute igogailu bat jartzerik izango litzatekeen.  | Tiburzio Anitua kaleko 1etik 3ra bitartean igogailu bat jartzeko asmoa aztertzen gaude, Karlos Elgezua kalera eramango lukeena.  |
| Obrak        | Torrekuako anbulatoriorako paso bat zabaltzea eskatu dute, zaila eta arriskutsua delako harako bidea. (Auzoko jendeak zuzenean jo du ETSra eta handik informazio kontrajariak jaso dituzte).   | Segurtasun arazoak tarteko ezin izan da behin-behineko pasabiderik egokitu Torrekuako anbulatoriora joateko.   |
| Hirigintza   | "Amaina" elkarteko ordezkariak –Wenceslao Orbeako igogailua kudeatzen duen elkarte- kexatu egin dira Udalarekin komunikatzerakoan ez dagoelako behar adinako erraztasunik, eta igogailuak mantentzeko 2014ko laguntzen deian 4 hilabeteko desfasea egon dela aurreko urteko deialdiarekin konparatuta. | Laguntzak tramitatzeko baldintzak aldatu egin dira, eta horregatik atera da dena beranduago. Aurten berriro aldatuko dira, interpretazio arazoak konpondu eta bai Udalaren asmoak bai bizilagunen beharrak modu egokian bete daitezten.                                    |
| Udaltzaingoa | Bide publikoan hildako animaliak egonez gero, haien erretiratzeko prozedura zein den galdetu dute. Kexatu egin dira, udaltzainei abisatu arren, hildako katu bat kalean 50 orduz egon delako.  | Gauzak ez dira egin egin behar ziren bezala, Makomunitateari kexa helarazi diogu, hark baitu erretiratzeko obligazioa, horrelakorik berriro gerta ez dadin.  |
| Hirigintza   | Ziriako Agirre kaleko 10. etxeko emakume batek baimena eskatu du pegorara sartzeko harmaila bat egiteko (hau da, 2 harmaila izatetik 3 harmaila eduki). Igeltsero bati galdetu dio eta egin daitezkeela erantzun.  | Pegoran idatzia aurkeztu beharko planoak eta gainontzekoak ekarrita, Hirigintza sailean aztertu eta bideragarria den ala ez ikusi ahal izateko.  |
| Udaltzaingoa | Gerontologikoaren ondoan oinezkoentzako jarri den sarbidearen seinalizazioa hobetzea eskatu dute. Kartelaren ordezkariak jartzea.  | Unean uneko arazoa izan zen, obren ondoriozkoa. ETSri helarazi zitzaion kexa, seinalizazioa hobe zezan. Konponduta dago gai hori.  |
| Udaltzaingoa | Galdetzen dute ea Eibarren autokarabanentzako propio jarritako aparkalekurik dagoen, eta edozein kaletan aparkatzeko aukera edukiz gero, hilabete askoan leku berean utzi ditzaketan.  | Eibarren ez dago autokarabanentzako aparkaleku berezirik eta kalean utzi daitezke baina ez behintzat hilabete askoan. Auzoko jendeari hauxe eskatzen zaio: ibilgailuren bat hilabete batez baino denbora gehiagoan badago leku berean aparkatuta, Udaltzaingoiari deitzea. |

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZOKO BILKURA Amaña

DATA 14/10/2014

| Saila        | LABURPENA   | ERANTZUNA  |
|--------------|---|--|
| Udaltzaingoa | Wenzeslao Orbea eta Karlos Elgezua kaleen artean behin-behineko semaforo bat jartzea eskatu dute.   | Gaia teknikoki aztertu zen eta bideragarria ez dela ondorioztatu zen, bai eskatzen duen lanen konplexutasunagatik (bide berria egin, besteak beste) eta etxebizitzengan duen eraginagatik.   |
| Udaltzaingoa | Eliza ondoko aldapan autoak bizkorregi ibiltzen direla oharteman dute. Sakanguneak edo badenak jartzeko eskatu dute.  | Espaloiko obra aprobetxatu da pasabide goratu bat egiteko.   |
| Udaltzaingoa | Otaolako sarreraren egoera txarragatik kexatu dira. Lautzeko, han porlana botatzea eta sakangunea leuntzea eskatu dute.   | Eremua gainbegiratu zen eta arazoa Valenciagako bidearen irteeran zegoela ikusita, konpondu egin zen..   |
| Udaltzaingoa | Umeen jolastokian ez dagoenez komunik, umeek Bustinduitarren kaleko 2aren fatxadaren ondoan egin behar izaten dutela txiza. Neurriak hartzea eskatu dute.                                     | Ordenantzak ez du inongo bereizketarik egiten nagusien eta umeen artean, ulergarria da, eta gainera saihetsezina, ume batek txiza egiteko premia duenean haren kargu dagoenak umea estolda gainean jartzea txiza egin dezan. Baina sekula ere fatxada baten kontra. Edozelan ere, parkean ibiltzen direnei emango zaie arazo horren berri. |
| Udaltzaingoa | Esaten dute kamioiak konfunditu eta saihesbidetik txarto ateratzen direla mimosa arbola baten abarrak apurtzen, eta Karlos Elgezua kalean istripuak sor ditzaketela.                          | Seinalazioa egokia dela uste da (kamioiak sartzeko debekua dakar). Ez du zalantzarako aukerarik ematen.  |
| Zerbitzuak   | Hondakin-erakundeak bista kentzen die oinezkoiei kalea gurutzatzeko orduan. Arazo horri konponbide bat emateko eskatu dute.   | Edukiontzia espaloiarene beste aldera eraman ziren arazoa konpontzeko.   |
| Zerbitzuak   | Ziriako Agirre kaleko 10. Etxeko emakume batek etxe pareko lorategian loreak sartzeko eskatu du.  | 2015eko azaroan landatuko dira, horixe delako sasoirik onena.  |
| Zerbitzuak   | Bustinduitarren kalean beira-erakunde bat jartzea eskatu dute, Lindare elkartetik gertu.  | Eskaria aztertuta, ez dago justifikatuta elkarte ondoan beira-erakunde bat jartzearena. Tiburzio Anitua kaleko eskailek jaitzita 60 metrora daude erakunde guztiak eta 90 metrora Ziriako Agirren.   |
| Zerbitzuak   | Iturrian ez dago urik eta horren zergatia galdetu dute.   | Saihesbidearen obrak egitean iturburua galdu egin da. Askotan ahalegindu gara hura bilatzen baina ez da aurkitu.   |
| Zerbitzuak   | Ziriako Agirre kaleko bananondoei buruzko kexa sartu dute, batik bat udan, zomorroak erakartzen dituztelako eta arropa-esekilekuetan geratzen direlako. Arbolak gaixorik dagoen galdetu dute. | Kexa horri, pertsona horrek egindakoa, lehenago ere Zerbitzuetako zinegotziak erantzun zion zuhaitzen oso kontuz hartu beharreko gaia zela esanez. Gaixorik dagoen begiratu da eta ez dagoen arren, udaberriaren tratamenduren bat jarriko zaie.   |

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZOKO BILKURA Amaña

DATA 14/10/2014

| <b>Saila</b>      | <b>LABURPENA</b>   | <b>ERANTZUNA</b>   |
|-------------------|--|--|
| <b>Zerbitzuak</b> | Pertsona batzuk eskailera mekanikoak txarto erabiltzen dituztela oharteman dute. Eskailera gerarazten ikusi dute jendea, eskaileratik jaitsi ahal izateko. Horrela, eskailera geratu egiten dira.  | Eskailera duen sistemari esker, STOPari behin bakarrik emanez gero, berriro martxan ipintzen da. Ostera, STOPari birritan ematen bazaio, mantentze-lanaren ardura duen enpresa da hura berriro martxan jartzeko etorri behar duena. Sistema zuzen dabilela egiaztatzen da. Erabilera txar hori egiten duena identifikatuz gero, ez dabilela zuzen jokatzen ohartemango zaio. |
| <b>Zerbitzuak</b> | Amaña kaleko 8-10 zenbakien fatxadan dauden farolak ez omen dute ondo funtzionatzen  | Farola berriak ipini dira.   |
| <b>Obrak</b>      | Amaña kaleko 10 eta 12 zenbakietako zorrotan hustubiderik ez dagoelaren abisua pasatzen dute.  | Bagenuen arazoaren berri eta konpondua dago.   |
| <b>Obrak</b>      | Tiburzio Anita 22ko presidentek pasealekura pasarelaren asuntua nola dagoen galdetzen du eta Udalak tunelaren berrikuntzak lagun badezakeen, pintadak garbitzen, bizilagunek espazioa berroneratzeko lanak egingo dituztela aprobetxatuta. | Bi kontuei buruz hitz egiteko bilera bat egitea proposatzen zaio.  |
| <b>Obrak</b>      | Ardantza eta Amaña lotzeko pasarela bat egitea posible den galdetzen dute, Legarretik pasatzea eta aparkalekuak kentzea sahiesteko.  | Baloratu zen, baina etxebizitza bihurtu diren sotoak daude eta pasarela azpian geratuko lirake, eta 15 familia inguru izango lirake kaltetuak. Legarreko inguru hobetuta inori kalterik egiten ez zaila uste da, eta aparkalekuak mantenduko direla argitzen da..  |
| <b>Hirigintza</b> | Asola Igartza baserriaren egoerari buruz galdetzen dute, inguru sokaz itxita dago. Gainera, teilatua egin badaitek galdetzen dute.   | Udal Arkitektak Udalarian anexua azaroan botako zutelaren berri eman zuen, eta egin ezean isuna jarriko zitzaie jabeen. Anexua bota egin zuten. Teilatuaren konponketari buruz, eraikina ordenazioz kanpo dagoen arren, Udala beti posibilista izaten da bizi baldintzak hobetzeko lanak egin nahi badira, baina hori bai, balio gehikuntzari uko egin beharko liokete.      |
| <b>Obrak</b>      | Trena estaltzeko lanak epeei buruzko interesa azaltzen dute, aurreikusitako eritimoan gauzatzen ari badiren jakin nahi dute.   | Bilera bertan, lanen arduradunek (ETS, Eusko Jaurlaritzaren menpeko enpresa) obra 2015eko martxoarako amaituta egongo zela jakinarazi zigitela esan zen, baina azken berrien arabera, atzeratu egingo zelaren susmoa geneukala. Kronograma bat eskatu zitzaie jarraipena egin ahal izateko.  |
| <b>Obrak</b>      | Legarreko frontoiko lanak nork egin zituen galdetzen da, eta baita garajeetara nola sartu behar zen, irteera oso txarra delaren kexu dira.   | Diputazioak egin zituen lanak, eta berari dagokio ardura hartzea. Garajeen jabeekin bilerak egin dira, gai horien eta lotutako beste batzuen gaineko informazioa emateko.  |

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZOKO BILKURA Amaña

DATA 14/10/2014

| <b>Saila</b>        | <b>LABURPENA</b>   | <b>ERANTZUNA</b>  |
|---------------------|--|---|
| <b>Zerbitzuak</b>   | Amaña kaleko bizilagun batek argazki sorta bat erakisten du ondo ipinita ez dauden baranda batzuk daudela azaltzeko (tarte handiagoa ematea eskatzen du) | 2 eta 6 zenbakien arteko baranda berriztu egin da eta lurzoruan lotu da.  |
| <b>Obrak</b>        | Bizilagun bat Amaña kaleko estolda batzuek lokatz eta harriz beterik daudela zalatzen du.  | Egoera hau obren ondoriozkoa zela ulertu eta ETSri abisua eman zitzaion konpon zezan.   |
| <b>Zerbitzuak</b>   | Legarreko frontoira doan bidearen argiztapena nahikoa ez dari buruz kexatzen dira.   | Kexa aztertu eta argiztapen murrizketa sarean zegoen matxura bati zegokiola ikusita, kable-sarea berri zen eta laster behin-betiko neurriak hartuko dira.         |
| <b>Obrak</b>        | Amañako bizilagun bat obren erruz fatxadak oso zikin daudela zalatzen du (lanak amaitutakoan fatxadak garbitzeko laguntzak egongo badiren galdetzen du)  | Obra amaitutakoan arazoak bere horretan jarraitzen badu, aseguru etxeari partea ematea eta Udalari jakinaraztea eskatzen da, ETSri arazoaren berri eman diezaion. |
| <b>Udaltzaingoa</b> | Karlos Elgezuan kotxeak oso azkar dabiltzala ohartarazten dute eta oinezkoentzako pasabiderik ez dagoela.  | Pasabidego goratuak egin dira ziriako Agirreko gurutzebidean, Bustinduin, Artegietan eta Karlos Elgezuan.   |